

N u !



Badator Birziklatrena



Azaroaren 1ean egingo da nekazari eta artisauen azoka

EUSKALTEGIKO MATRIKULA IREKIA

Maila guztiak
EGA ikastaroak
Hizkuntza eskakizunak
Alfabetatzea

Ordutegia: Goizez, arratsaldez eta gauzez



LANGABETU ETA GURASOENTZAT DOHAINIK!

Telf: 943 37 20 01 Kale nagusia 43, behea

- Zerbitzu azkarra eta etengabea
- Aseguru konpainia guztiei zerbitzuak eskaintzen dizkiegu. Gonzalez ehortzetxera zuzenean deitu.



**GONZALEZ
EHORTZETXERA**



Muna lurra, 18 - 1.A
20170 Usurbil

Telf: 943 36 21 63
Mob: 608 16 77 92

Usurbil autoeskola orain **LASAPTE** Autoeskola izatera pasako da



Kale nagusia 5, telf: 943 36 27 93

Hau dela eta, Usurbil Autoeskolan
izena emanda zeuden guztiak
pasa daitezela lehen bait lehen
bertatik beraien egoera
erregularizatu dezaten.

Txirrikitutik



Egile ezezaguna, 1977-01-19 Udal fototeka
Udaletxeko pleno aretoa

Ez dira garai onenak une honetan bizi ditugunak baina hala ere garbi dugu orain arte bezala lanean tinko jarraitu behar dugula, gure hizkuntza eta kultura lau haizetara zabaltzen eta maitatzen. Tristoraz eta saminez beteriko egun hauei bizitasun pixka bat eman nahian, duela 26 urte gure herrian bizi izan zen gertakizun historiko baten inguruko irudia aukeratu dut.

1977ko urtarrilak 19a egun handia izan zen euskaldunontzat, San Sebastian bezpera izateaz gain ikurrinaren legeztapena eman baitzen. Usurbilgo udalak ohiz kanpoko osoko bilkura antolatu zuen ikurrinaren legeztapenaren inguruko mozioa aurkeztuz. Bertan hauxe erabaki zen: "La corporación Municipal acuerda por unanimidad aprobar la moción íntegramente y, en consecuencia, reconocer oficialmente por parte de la misma la ikurriña o bandera bicrucifera como símbolo representativo del País Vasco... acordándose también que la misma sea izada con la bandera nacional y la del pueblo vasco en el balcón de la casa consistorial."

Argazkian Felix Aizpurua zinegotziak mozioa irakurtzen ageri da. Aldamenean berriz, Andres Bruño, orduko alkatea, eta Jose Antonio Altuna zinegotzia ageri dira. Azkenik aipatzekoa da argazkiko protagonisten atzean agertzen diren hiru sinbolo esanguratsuak: Espainiako erregea den Juan Carlos I.aren erretratoa, Jesusen Bihotza eta ikurrina.

Zalao Arnaiz Ibareguren.

e-posta: fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net



OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta Noaua!ko Txirrikituko atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez udal fototekarekin harremanetan, udaletxeko 2. solairuan gaude (9:00etatik 14:00etara). Bestela, 943371951 telefonoan edo fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net e-postan aurkituko gaituzu. Garai bateko argazkien bidez gure herria hobeto ezagutzeko aukera izango dugu. Anima zaitez!

N u !

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea : Imanol Ubeda

Kazetariak: Imanol Ubeda eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea: Jon Rueda

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbieta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfonso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udale, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe eta Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Jon Rueda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Aurkibidea

ZUTABEAN, OLATZ ALTUNA	4. ORR.
BERRIEMAILEAK KALEJIRAN	6. ORR.
KONTZEJU TXIKIA	11. ORR.
2004ko ordenantza fiskalak	
LASTER IRITSIKO DA BIRZIKLATRENA	14. ORR.
San Markos Mankomunitatearen kanpaina berria azaroaren leian iritsiko da gure artera.	
UDAL HAUTETSIEEN ORDAINSARIAK	15. ORR.
ALBISTE LABURRAK PORRUSALDAN	16. ORR.
JAVIER SANCHO, EZ OHIKO PILOTARIA	17. ORR.
EKITALDI AIPAGARRIENAK AGENDAN	22. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldirkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldirkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

AZALA

Nekazarien eta artisauen ordua da.

Zutabea !



OLATZ ALTUNA

Diosala udazkenari: Gora Euskal Herri Euskalduna

Udazken giro petoa etorri zaigu. Nork bere bidaia egiten du: hegaztiak hegora, hostoek lurrera, gizakiok geure baitara.

Ez nion malenkoniari tarterik eskaini nahi. Paseak pasa, kutsu alaia eman nahi nion idazki honi. Pentsatua nuen gai arinen batetik tiratzea: Usurbilgo haur-izenen bilakaera, esate baterako. Ez nuen betiko gai astunen zakuan erori nahi. Baina, azkenean, berrogeita bi arrazoi handi gailendu zaizkit. Azken egunotan beste berrogeita bi euskaldun eraman dituzte atxilotuta, agintariak esan dutenez, batzuk prebentzio neurri gisa eta besteak euskalgintza zepotik askatzeko. Eta amore eman dut.

Nahikoa da!

Nola onar dezakegu prebentzioagatik inor torturatzea eta kartzelaratzea? Edo, bigarren operazioari dagokionez, euskalgintzaren muin-muina hala kolpatu eta, gainera, burlaz, euskararen mesedetan ari direla esateko kapaz direnei, nola erantzun behar diegu?

Larunbatean, euskaltzale askoren deia darra aditu zen Donostiako kalean. Igandean, oihartzuna zen. Astelehenean, itzalita zegoen ia. Donostian bildutako jendearen nahia, gogoia, energia, itzaltzera doa berriz ere, non-eta ez den ekinbide politiko bateratu bat abian jartzen. Ekinbideak, azpimarratu egingo dut, politikoa izan behar du nahitaez. Ez derrigor partidu politikoaren baitatik sortua, bai etorkizuneko proiektu

politiko baten oinarri adostu eta zabala definituko duena. Ez du balio, zenbaitek dioenez, euskalgintza eta politika bereiztea. Gora Euskal Herri Euskalduna! oihukatzen dugunean, euskararen lur-eremua aldarrikatzen ari gara. Euskara ez da, soilik, izate abstraktua. Euskarak hiztunak behar ditu. Eta hiztunok lurra behar dugu.

Gaur, politika gutxiesteko joera dagoen honetan, euskarak benetako politikaren beharra du. Goitik behera egiten den politikak ez digu babesik ekarri. Orain dela zortzi hilabete bezain ahul harrapatu gaituzte, berriz ere. Egin dezagun, bada, behetik gora, Egunkariaren aldeko plataformak eredu hartuta. Saia gaitezen elkarlan espazioak herrietan mamitzen. Adibidez, antola ditzagun Euskal Herri Euskaldunaren aldeko herri-plataformak, euskararen eta Euskal Herriaren defentsa eta aurrerabide politikoa landuko duten herri-plataformak.

Esan diezaiegun politikariei: "zuek kapaz ez zaretenez, guk, euskaldun xeheok, euskalgintzako eragileok, geure buruaren defentsak behartuta, honako Proiektu Politikoa definitu dugu". Ameskeria ote?

Hau idazten ari naizela ez dakit nola amaituko den azken atxilotuen kalbarioa. Akaso, Donostiako deia dar itzaliari torturaren garrasi isila gailenduko zaio, berriz ere. Bien bitartean, udazken giro petoa etorri zaigu. Nork bere bidaia egiten du: hegaztiak hegora, hostoek lurrera, gizakiok geure baitara, euskara zokora, euskaldunok kartzelara.

Zutabegileak: Luis Aranalde • Olatz Altuna • Aitziber Matxain • Ainhoa Azpiroz • Aitor Landaluze • Mikel Usabiaga

Ika-mika !

Argitzen,
Udalak azken plenoan hartutako erabakiari buruz

Jakina denez, Euskal Presoak Euskal Herrira aldarrikapena noiz eta zer egoeratan jaio zen azaltzen ez gara errepi-katuko, izan ere aspalditik gaude lelo horrekin eta gure uste apalean herriko gehiengo batek honekin bat egiten duela oso garbi azaldu da urteetan zehar. Hitz batean presoaren eskubideak defendatzen ari ginela uste genuen eta giza eskubideen aldeko udal batekin topatzen ginen; topatzen ginen esaten dugu, zeren hauteskunde ondoriordezkarien aldaketa eman bada ere, giza eskubideen alde egingo zute-

la jotzen genuen. Zoritxarrez azken plenoan erabakitakoaren arabera ozenki esaten dugu euskal presoak euskal herriratzearen aldekoak direnik ez zalantza bizian jartzen dugula. Aldarrikapen hori adierazten duen ikurrak horrelako begi bistako mina sortaraziko zietela ez genuen ere burutik pasatzen. Zer uste dute, ezkutatzearekin arazoa konpondua dugula? Beraz, Udaletxeko paperetan E.P.E.H.aren ikurra agertzea ez badute nahi ere, herritarren jarrera zapuztu ezingo dutelakoan gaude. Horregatik, gure partetik Usurbilgo herritar orori zera eska-

tzen diogu:

Zure etxeko hormetan, leihoetan edota edozein zirrikituetan E.P.E.H. zapia zintzilikatzea.

Era honetan, udaleko paperetan ez badute ikusi nahi, herriko kaleetan ikusteko aukera izango dute.

P.D: Ormaetxeari gogoratzeko presoak Estatu espainiar eta frantziarraren presoak direla eta horiei dagokiela beren (eta gure) eskubideak bermatzea.

Usurbilgo Etxerat

Berriketan !

Esteban Lertxundi: "Sagardo berria iaz baino hobea izango da"

Baba Beltz Txiki festan protagonista nagusia izan Esteban Lertxundi. Aitzaki horrekin solasaldi baterako hitzordua jarri genuen Saizar jatetxeko lagun honekin.

Gustura ikusi zintudan, lagun artean, Baba Beltz Txiki egunean.

Baba txikia jaten orain dela 17 urte hasi ginen. Bordatxoko terrazan biltzen ginen urtero. Gero Andazpen hasi ginen elkartzen, Felix sukaldari lanetan. Urteak pasa ahala, beti hobetzen, ezta?

Aspaldiko lagunak biltzeko aitzakia da. Urtean egun berezia da hori?

Bai, gustuko eguna dugu, abuztuko azken osteguna. Eguna pasa konpletua. Goizean atera, ondo bazkaldu eta gero buelta bat eman.

Udan bestelako kontuak ere izan

ditugu. Bero bolada honekin sagarra ere nahiko kaltetua izan da. Horrek eragina izango al du sagardo berrian?

Ez, Galizan oso preskoa izan da uda. Urte normal batean bezala. Akaso, iaz baino hobea izango da. Lehengo urtean hilaren 29an hasi ginen, eta aurten presarik ez eta urrian hasi gara.

Oker ez banago Galiza aldean ibilizara.

27 urte daramazkigu hara joaten. Lagun zaharrak ditugu han. Buelta bat egiteko aprobetxatzen dugu. Eskaera telefonoz ere egin daiteke baina gustatuko zaie gu hara hurbiltzea.

Sagarra ona topatu duzue han. Iaz baino gehiago ekarri behar izan al duzue?

Bai. Aurten gehiago, hemen oso gutxi dago. Lehengo urtean 700 tona



LAIAREKIN EGIN ZUTEN "KOFRADIA"KO KIDE ESTEBAN LERTXUNDI.

ekarri genituen eta hemendik 200 tona. Eta beste 800 sagar tona, Normandiatik. Aurten, hemen falta dena Galizatik eta Normandiatik ekarri dugu.

Lehen ez genuen jatetxea irekitzen sagar-lana bukatu arte. Baina orain bodega eta jatetxea aparte ditugunez, urriaren erdialdetik atek zabalik ditugu.

Ika-mika !

Demagogiari erantzunez (II)

Urriaren lehen egunean gure etxeetara "Usurbilgo Esker Abertzaleak" sinatzen duen paskinak banatu zituzten. Idatzi horretan nere izena agertzen denez erantzun publiko bat ematera beharturik nago.

Lehenik "Usurbilgo Ezker Abertzaleak" zer den argitu diezadaten gustatuko litzaidake. Sigla horien atzean ze aurpegi daude? Nortzuk zarete? Herri Batasuna zeritzanak azken urteetan izan duen disgregazio eta dispertsioaren ondoren – horren lekuko dagoen siglen-festa: Batasuna, Euskal Herritarrok, Aralar, Usurbilgo Sozialista Abertzaleak, Usurbilgo Herri Lan – nork bereganatzen du "ezker abertzalea" deitura?

Udal batzarrak zuzentzeko era kritikatzeko zenidaten. Azken udal batzarrak erakutsi zigun udal korporatiboek eta alkateak duten pazientzia eta tolerantzia maila. Herritar baten interbentzio luzea hitz hauekin hastea: "zinegotzi lapurrak eta alkate usurpatzaile ..."; udal pleno aretoan oihuak entzun beharra; udaltzainen aurka

irainak (zipaioak) entzutea; eta halere, batzarrak normaltasun erlatibo batean jarraitu izanak dauzkagun korporatiboen alde hitzegitea dela deritzot.

Udal batzarrak publikoak eta irekiak dira. Bertaratu nahi duen orok aretora sartzeko eskubidea du. Baina horrek ez du esan nahi anonimatotasunaren babesean edozein jarrera eta portaera toleratuko ditudunik. Ekainaren 13ko gaueko gertaerak ez dira errepikatuko. Herritar anonimoek ez digute udaltea txikituko. Aurreko legealdiko 6 zinegotziek ez dituzte beren giltzak (ate guztiak irekitzen zituzten) itzuli nahi izan, eta horregatik udalteekeko zerrail guztiak aldatu behar izan ditugu (3.600 euro). Ekainaren 14ko gertaerak (plenoa ezin garatu) ez dira errepikatuko, ez anonimatotasunaren inpunitatean.

Udal eginbeharren aurrean errespetuz gerturatzen denak atek zabalik ditu.

Azkenik. Udal batzarrean, oposizioak bat eginik, beste erabakien artean, udale-

txearen aurrealdean dauden kartelak kentzea erabaki zen. Erabaki honen aurrean, alkateari, agindu hori betearaztea besterik ez zaio geratzen.

Egungo udal gobernuaren talante demokratiko eta partehartzailea zalantzen jartzen da banatu diren paskin horietan. Horren froga alkateak onarturiko 200 bat dekretu.

Kontutan izanik udala ekainaren 14an eratu zela, gobernu eta komisio ezberdinak uztailearen 15ean, abuztuan jai izaten dela (alkatearentzat ez) eta irailan martxan hasi garela; nola demontre gobernatu behar da herria? Obra txikien baimenak (leio aldaketak, fatxada zuriketak, etabar) hiru hilabetez zai egon behar dute? Zerga itzultzeak eta subentzioak zai egon behar dute? Udal partehartzailea, bai; demokratikoa, dudarik gabe; eta eraginkortasuna, helburu nagusia.

Demagogiarik, ez!

Luisuari Ormaetxea, alkatea

IÑAKI
LABAKA

Txokoalde

Sagarrak eta angulak

Urte sasoi honetan, sagarra biltzeko garaia izaten da. Beti entzun izan dugu euri urtea sagar urtea izaten dela, aurten lehortea handia izan dugunez, bero izugarriak eginez, uzta oso txarra izan dugu.

Auzoan behintzat beste urtetako mugimendua ez da ikusten, alegia ez dira ikusten, aurrekoetan bezala, traktoreak sagarrak garraiatzen, ez sagar pilarik baserri aurrean.. Oraindik ez dira sagarrak jotzen hasi eta tolaareak geldirik daude ez dugu bere soinua aditu.

Bestalde, urriaren 15an hasten zen angula harrapatzeko epea, baina egun bat lehenago, Boletin Ofizialean agindua argitaratuta, Lakuako Gobernuo Nekazaritza eta Arrantza departamentuak, aldi baterako debekua ezarri du Prestige ontziaren isuriak eragindako kalteak direla eta.

Esan bezala, neurri hau aldi baterako izango da, epe horretan angulen kalitatea aztertzeko eta

Prestige ontziak isuritako fuelak angulei kaltea eragin dien frogatzeko beharrezkoak diren ikerketa eta analisi guztiak egingo dituztela iragarri dute. Berrito arrantzatzeko baimena emango dute zientzialarien txostenek horixe aholkatu bezain laister.

Azken urteetan oso angula gutxi harrapatu da inguru honetan, hala ere asko dira oraindik ibai ertzeren hurbiltzen direnak bere baiarekin angulak harrapatuz, etxerako adina behintzat. Hainbatek honez gero preparatuta izango zituen arrantzako tresnak eta orain ezin ibaira irten.

Bukatzeko, jakina da Irabi bidean lagun asko ibiltzen dela bere paseotxoak egiten eta korrika ere jende ugari pasatzen dela. Aipatzekoa da, zihur asko Donostia-Behobia lasterketa arrimatzten ari delako, prestaketa egiten ohizkoa baino korrikalari gehiago ikusten dela. Aurten ere Usurbildik partaide asko izango da lasterketan, ea denak ongi bukatzen duten.

Gazteen oihua bertsolaritzan

IÑAKI
AGIRRESAROBE

Kaleberri

Gipuzkoako bertsolari txapelketa hasterakoan, 70 gaztek izena emana zuten denak 18tik 30 urtera bitartekoak eta batz besteko media 25ekoa zelarik. Lehen fasea amaitu delarik, final laurdenetako 5 saio daude ospatzeko. Tartean, gure herriko bertso eskolan ibiltzen den Xabier Sukia oriotarra dugu, gogotsu. Datorren larunbatak 25 arratsaldeko 5etan Oñatiko Santa Ana kultur etxean izango da saioa Jokin Uranga, Nerea Elustondo, Iñigo Eizagirrekin batera.

Txapelketa honetan atera daitekeen ondorioa bertso eskolek eginiko lanaren emaitza dela kopuru guzti honen izen ematea. Lehen fase honetan orokorrean maila nahiko dezentea eta bizia nabarmendu dela, aretoak bete



egin direla eta giro beroa egon dela bertsolari bakoitzak bere jarraitzaileak eman dituelako.

Bestalde, bertsolaritzarekin loturik ere, azaroaren 3tik 8ra Donostian Nazioarteko Ahozkotasanaren Topaketak egingo dira 10 herrialdeetako ordezkariak etorriko direlarik. Besteak beste, Georgia, AEB, Kuba, Mexiko, Mallorca, Sahara eta Kanariasko trobadoreak. Hori dela medio, azaroaren 5erako Usurbilen bertso afari bat antolatzten ari gara Nazioarteko 30 gonbidatuentzat beraiek jakin dezaten honelakoetan zer nolako giro egoten den. Tartean, Beñat Lizaso eta Xabier Silveira bertsolariak izango ditugu kanpotarrentzat gozagarri.



Hego haize erotzailea

Iepa guztioi, hemen naizela berriro ere. Idatzi Ithonen izenburuak dioena egia borobila delakoaren ustean nago. Eta esango dizuet zergatik.

Urte honetako uda ez dut uste inork ahaztuko duenik. Latza izan da benetan; beroa, lehortea, animaliak nonnahi ur bila, beroaren eraginez hildakoak han eta hemen... Latza benetan! Baina ene uste apalean udazkena latzagoa datorrenaren susmoa daukat. Hego haizea hasi da bere lana egiten. Ehiztariak aztoratu ditu berriz ere eta denak beren txakurrak eta eskopetak hartu eta hortxe dabilta pakean daudenei dinbi eta danba. Zuhaitzetako hostoak ere makurrarazi egiten ditu hego haizeak eta denak xume-xume lurreraztea lortzen du.

Baina ez da hori bakarrik! Bada hego haizearen eraginez "lanean" dabilen besterik ere; epaileak hain zuzen ere. Berriz ere, hostoen eta txorien pare, euskara eta euskal kultura lurreratu egin nahi dute. Zein ote da euskarak eta euskal kultu-



rak gure artean egiten duen kaltea? Norbaitek erantzuna eman diezadala zeren ez dut tutik ere ulertzen!

Nere amonak, zoroak kanpoan eta sanoenak Santa Agedan zeudela zioen eta ez zuen ez arrazoi faltarik! Aio eta ondo izan.

Kalezar



MAIDER
MAKAZAGA

Nik bai. Eta zuek?

Askotan galdetu didate niri, "aizan, ta hi Anungua haiz?" eta, nola ez, nire erantzuna beti honakoa izan da: "-Ni? Atxegaldekua,... bueno bale, Usurbilkua."

Jendea. Etxeak. Etxeak betetzeko jendea behar. Etxeak. Etxerik gabe auzorik ez, herririk ez, hiririk ez. Beraz, herririk ez dago etxerik gabe eta etxeak zertarako jenderik ez badago? Jendea beharrezkoa da. Jendea. Gizakiak ala pertsonak nahia-go. Pertsona bakarra balego munduan, etxe bakarra egongo al litzateke? Baina pertsona bakar bat egotea ia ezinezkoa dela deritzot. Beraz, jende mordoak aukeran, nahiago. Jendeak jendea behar du bizitzeko. Elkar maitatzeko. Elkar zaindu eta babesteko. Orduan jendea, etxeak, auzoak, herriak, ... behar ditugula sentitzen badugu, zergatik bilatzen dugu bakartasuna ahal dugunean? Ala besteak dira gu bakarrik uzten gaituztenak? Etxeak jendea behar duen moduan, auzoak etxeak behar ditu, eta auzoak beste auzoa behar herri izateko, herri sentitzeko. Nik pertsonak behar ditut, badut jendea. Etxea ere beharrezkoa zait eta



"Paisajes Españoles"

Udal fototeka

badut. Baina leihotik begira etxeak eta jendea besterik ez dut ikusten, ez auzorik, ez herririk. Bakardadea. Atxegaldek aspaldian galdu zuen auzoak duen berotasuna, alaitasuna. Atxegalde bakarrik dago. Ez du herriaren babesik, ez du herriak zaintzen, eta maite ote du? Nik bai. Eta zuek?

Atxegalde



AINARA
ARNAIZ



Santuenea

AGURTZANE
SOLABERRIETA

Gerora begira

Aginagan pilotaleku berria dute. AZubietakoa oso aurreratuta dago eta errepidetik ere ikus daiteke sapaialdea. Ziur kirol jarduerentzat guztiz baliogarriak direla Aginagako zein Zubietako instalakuntzak. Itxia dagoen eraikina den aldetik, beste erabilera batzuk ere izan ditzake pilotaleku batek. San Praixkuko jaietako gehigarrian jasota geratu zen bezala, herriaren bilgunean ere bilakatzen da kirol aterpea.

Hasi zarete nire kronikari zentzua hartzen, ezta? Badakit orain proposatzera natorrena ez dela berria. Arau subsidiario berrien aurkezpenean aurrikusten baitzen egitasmoa. Nire proposamena oraindik asmatu ez duzenontzat esan, Santueneko eskubaloi zelaia lau pareta eta sapa batez ixteaz ari naizela hizketan. Eskubaloian edo futboleko ibiltzeko, jolasean aritzeko, jaietarako...

Beraz, erabilgarritasun ugari izango luke



Santueneko kirol zelaia goitik eta alboetatik babestuko bagenu. Neguaren atarian gaude, eta kale gorrian baino etxeko epelean egoteko hobeto dago. Ea berandu baino lehen azpiegituren alorrean ere, gure auzoa Aginaga, kaxkoa eta Zubietaren parean jartzen dugun.

Basurdeak inguruan




Urdaiaga

EIDER
JAUREGI

Udazkenean sartzearekin batera izan da mugimendurik gure auzoan. Azken egun hauetan, goizean goizetik hainbat eta hainbat ehiztari ikusi ditugu gure inguruan. Ez da tiro hotsik falta izan. Ez dakit ehizatzeke uso edo galeperrik izango duten baina bai basurdeak. Badira hilabete batzuk, gure inguruan basurdeen presentzia sumatu genuenetik. Hainbat eta hainbat baratza eta artosoretan triskantzak egin dituzte, eta ea ba ehiztari hauek beraien tiro hotsekin uxatzen dituzten. Ehizatzeke ezer ez badute, perretxikuak biltzeko aukera paregabea izango dute bertaratzen direnek, azken asteetan kilo mordera eraman baitute bertatik. Baina kontuz ezagutzen ez diren perretxikuekin, ezbeharrak inork deitu gabe etortzen dira eta.

Beste aipamen txiki bat ere egin nahi nuke. Auzoko buzoiak jasaten duten tratuari buruz, ez dut ulertzen nori kalte egiten dioten buzoiek.



Dagoeneko hainbat aldiz konpondu dituzte eta beste batean berriak ere jarri zituzten eta orain lehengoa gutxi balitz hirugarren aldiz berriak jarri dituzte.

Ea oraingoan behin betiko diren, egia esan, ez da batere atsegina egoera hau; ez dakigu gutun guztiak iristen zaizkigun ala ez, baina tira. Azken aldia izango al da.

Irailaren 11a eta San Praixkuak pasata

Irailaren 11 honen inguruan hainbat pentsakizun etorri zait burura. New Yorkeko Dorre Bikiak, Arafat Mukatan behatzekin bere herriari garaipen zeinua eginez... eta atzera begiratu -1973raino- Chileko Salvador Allende lehendakariaren azken hitzak. Heriotza ate joka zeukala bazekien baina herriaren ondoan egotea erabaki zuen.



Dorre Bikiena benetan gogorra izan zen. Herri palestinarren kontrako genozidioa izugarria da. Eta Europako gobernuek eta herritarrok isilik jarraitzen badugu oraindik gogorrago izango dute palestinarrek.

Chileko gertakizunak aipatu ditudanez, joan den mendeko 70eko hamarkadako kontuak etorri zaizkit burura. Aginagako gazteriaren artean bazen holako mugimendu bat: ostiralero biltzen zen jendea, hitz egiteko batez ere -bide batez gauza asko antolatze ere bai: euskarazko klase-

ak, festak eta abar. Eta bertan elkartzen giren adin ezberdinetako gazteak. Ondoren Oriora joaten ginen koadrilan.

Oriotarra tabernan lehen parada. Hango musika makinari txanpona bota eta Natxo de Felipe edo Xabier Leteren musikak gustora entzuten genituen. Ondoren Gabon, Txindoki eta beste tabernetan barrena segitzen genuen. Nabarmenak ginen aginagatarrok Orioko kaleetan.

Ostiral haietan entzun nuen lehenengo aldiz Victor Jara abeslari txiletarraren musika eta han kontatu zidaten nola moztu zizkioten eskuak, torturapean. Igandero jaunartzera txintxo joaten ziren militar haiek eta beren buru zen -eta bigarren abizena euskalduna duen- Pinochet jeneralak.

Victor Jararen musika entzutera animatzen zaitzuten. Garantizatzen dizuet bai Sanpraixkuetan, bai Santixabeletan, eta bai hemen bezala Madrilgo festetako tabernetan ere entzuten den "musika" horren antzik ez duela.

Aginaga



LONTXO
ZUBIRIA

Zubietan jokatuko da finala

Eguraldiak inoiz baino gehiago baldintzatu Edu aurtengo errebote txapelketa. Lehengo igandean, Nafarroa Oinez eguna bezalaxe, Endika Abril txapelketako finalerdiak ere bertan behera geratu ziren euri-jasarengatik.

Eguraldiak laguntzen badu, igande honetan (urriak 26) jokatuko dira finalerdiak. Hazparne-Villabona, batetik; Uztaritze-Donibane Lohitzune, bestetik.

Finalerdiak Villabonan jokatuko dira baina finala Zubietan bertan jarraitu ahal izango dugu. Honakoan ere, eguraldiak izango du azken hitza. Baina gauzak ondo badoaz, finala azaroaren 2an jokatuko da.

Zubietako errebote taldeko kideak finalerdien atarian geratu dira. Final laurdeneko norgehiagokan, Villabonako Behar Zana taldea izan zen nagusi 13-6 emaitzarekin. Euriak bitan atzeratu zuen partida hau.



Zubietan



ALEX
UDABE

Azaroaren 1ean egingo da Eskulangintza eta Nekazaritza Azoka

Santu Guztien egunerako azokarekin aurrera egitea erabaki du Aitzaga Kultur Elkartek. Hasierako egitasmoan, Udala eta Aitzaga Elkartekoak ziren antolatzaileak. Baina azken orduko tirabiren ondorioz, Udalak azokaren antolaketan ez parte hartzea erabaki du. Aitzaga, aldiz, hitzordua mantentzearen alde azaldu da.



IAZKO AZOKAN ATERATAKO IRUDIA.

Ia dena lotuta zegoen. Erreportajeari ekiteko unea zen, beraz. Hitzordua urriaren 16an ipini genuen. Eta jarritako orduan bildu ginen nekazaritza departamenduko udal teknikariarekin eta Aitzaga Kultur Elkarteko kideekin. Datuak jaso, batzuen eta besteen aipamenak bildu eta erreportajea idazteari ekin genion. Honela hasten zen gaur irakurri beharko genukeen jatorrizko erreportajea: “(Sarrerako testua) Iaz, bi azoka egin ziren. Lehena, Udalak sustatua eta bereziki nekazaritza produktuak biltzen zituen. Bigarrena, Aitzagak antolaturiko artisau azoka. Baina bietan elementu antzekoak jaso ziren: abereak, bertako nekazarien produktuak... Aurten, ordea, indarrak bildu eta azoka ederrago bat osatu asmoz, bi egitasmoak uztartzea erabaki da. Ondorioz, inoiz egin den azoka oparoenetako bat izango da aurtengoa”.

Erreportajea ostegunean, urriaren 16an, bertan amaitua genuen.

Biharamunean, ordea, telefonoz jaso genuen albisteak. Bi antolatzaileen arteko harremana, Udala eta Aitzaga Kultur Elkartearena, eten egin zela eta azoka kolokan zela.

Handik ordu gutxira, Usurbilgo Eusko Alkartasunaren idatzia iritsi zen e-posta bidez. Alboan dituzue alkateztan dagoen alderdiaren azalpenak.

Aitzaga Kultur Elkarteko kideek diotenez, “dena lotuta zegoen. Kartelean ipini beharreko ikurrekin sortu da ikamika. Gure logotipoan elkarteko izena, arrano beltza eta ‘euskal presoak etxera’ lema biltzen dira”. Aitzaga elkartekoek diotenez, ez zeuden logotipotik presoan esaldia kentzeko prest eta horregatik apurtu omen da elkarlana: “ezin dugu injerentzia hori onartu. Gainera, une honetan esaldi hori gure elkartearen ardatza da. Horregatik ez dugu txantajerik onartuko”.

IDI DEMA, AZAROAREN 2AN

Azaroaren lehen asteburua mamitsua izango da. Aitzagak azokaren deialdia mantentzea erabaki du. Hori azaroaren lehenean izango da, Santu Guztien egunean.

Biharamunean, ordea, azaroaren 2an eta igandez, idi-dema antolatu dute Aitzagak eta Andazpe elkartek.

Saioa arratsaldeko 18:00etan hasiko da eta aurrez aurre lehiatuko direnak: Argote, Olasagasti eta Telleri, 1.100 kilotan.

Aitzagakoek, dena den, azokarekin aurrera egitea erabaki dute. Ganadu txikia eta nekazaritza produktuak bilduko dituzte Santu Guztien eguneko azokan. Artisau eskaintzan bi nobedade iragarri dizkigute Aitzagakoek. Batetik, burnilanak ikusteko aukera izango da. Eta bestetik, euskal pilota nola egiten den ikusi eta ikasi ahal izango da. Juan Karlos Otero artisaua pilota nola egiten den azalduko du.

Azoka burutu ahal izateko, Aitzaga Kultur Elkartek mahaiak, megafonia eta abereak lotuta mantentzeko itxiturak eskatu dizkio Udalari. Udalak onartu du proposamena, beraz, azokak aurrera egin ahal izango du.

Elkarlanak zapuzten

Aurtengo azaroaren 1ean azoka handi bat antolatzeko asmoak zeuden Aitzaga eta Udalaren artean. Indarrak batzea beti egokia denaren ustetan bide horretatik lan egiteko asmoa azaldu genuen.

Aitzagak, hasieratik elkarlana baldintzatu zuen Udalak eman zezakeen laguntzara. Elkar lan honetan zailtasun ugari izan dira: udal lan brigadak zer puntuturaino lan egin, publizitatean bi

antolatzaileen presentzia, dastaketak herritarrei kobratzea... Zailtasun hauen aurrean beti konponbideak aurkitu izan ditugu.

Ia guztia antolatua zegoenean eta hain egun gutxi falta zirenean azoka ospatzeko, Aitzagak, lehen adostutakoak kuestionatzen hasi zen. Egoera hau konpondu nahian Alkateak hitz-egitera deitu eta ez ziren azaldu. Hurrengo egunean beraien azokaren zatia bakarrik antola-

tzeko asmoarekin udalari laguntza eskatu zioten idatzi baten bidez: mahaiak, aulkiak, hesiak, mikrofonoak, garbiketara...

Barkamena eskatu nahi diegu, azoka honetan parte hartu nahi zuten baserri-tarrei eta gogo zintzoz antolatzen aritu direnei. Izango dugu aukera aurrerago beste azoka bat antolatzeko.

Eraberrituak datoz 2004ko zergak

Irailean egin zen udalbatza plenan, 2004ko ordenantza fiskalak zehaztu ziren. Bide batez, udal-tereko barne-kudeaketarako araudia ere onartu zen. Aurreko alean agindu bezala, datorren urterako finkatu diren zerga, tasa eta prezio publikoetara hurbildu nahi izan dugu.

Luismari Ormaetxea alkateak azaldu dizkigu zerga, tasa eta prezio publikoetan eman diren aldaketa nagusiak. Antza denez, 2004ko ordenantza fiskaletan eragin zuzena izan dute hiru neurri hauek:

1. Foru Aldundiaren arauetan oinarritzen dira ordenantza fiskalak. Foru arau horiek aldatu egin dira aurretan.

2. Iharduera ekonomikoaren gaineko zerga. Estatuak aldatu duen zerga eta udal-finantziarioan eragin zuzena izan duena.

3. Kiroldegian eman diren aldaketak. Legeak dioenez, aurrerantzean uneoro sorosle bat egon behar du igerilekuan. Honek bonoaren garestitzea ekarri du. Prezioen igoera, hala ere, mailakatu izango da (lau urtetan gauzatuko da igotera). Bitartean, gain-kostua udalak hartuko du bere gain.

ORDENANTZA AIPAGARRIENAK

Honakoan, azpimarragarri egin zaizkigun hainbat datu bildu ditugu. Dena den, asko dira zergak, tasak eta prezio publikoak. Informazio gehiago eta zehatzago, udaletxean jaso ahal izango duzue. Dena den, hemen dituzue aipagarri egin

zaizkigun hainbat ordenantza.

Ondasun higiezinaren inguruko zergari dagokionez, babes ofizialeko etxeak sustatzeko neurriak ipini dira indarrean. Inmobiliariei, proiektua bideratu eta eraikitzen hasten diren epean, beharpen batzuk eskainiko zaizkie; zergetan ordaindu beharreko kopuruetan, noski. Hobarria %60koa izango da lehen urtean, %55a bigarren urtean eta %50a hirugarren urtean.

Hutsik dauden etxebizitzetara, aldiz, erre-kargu bat ipini zaie. Usurbilen 100 inguru dira hutsik dauden etxeak. Errekargu honen bidez, hutsik dauden etxe horiek merkatura ateratzea bultzatu nahi da. Errekargua zergaren %25ekoa izango da.

Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan, hobariak aurrikusi dira enplegua sortu, energia berriztagarriak erabili edo ingurugiroaren aldeko ekimenak sustatzen dituzten enpresentzat, bereziki, 2 milioi eurotik gora fakturatzen dituztenentzat.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagokionez, batzaz beste, herritarren %70ak aurretan gutxiago ordainduko du. Hainbat ajuste egin dira eta ibilgailu mota batzuetan eman ez bada ere, gehiengoak beharpena sumatuko du 2004ko zerga ordaintzerakoan.

UR-HORNIDURAREN TASA

Arestian aipatu bezala, aurretan hainbat egokitzapen egin dira ordenantza fiskale-

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA	
Potentzia eta ibilgailu mota (turismoak)	Kuota
- 9 zaldi fisikaletik beherakoak	24 euro
- 9 eta 11,99 zaldi fiskal bitartekoak	48 euro
- 12 eta 13,99 zaldi fiskal bitartekoak	96 euro
- 14 eta 15,99 zaldi fiskal bitartekoak	144 euro
- 16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartekoak	192 euro
- 20 zaldi fisikaletik gorakoak	264 euro

tan. Koeffizienteak finkatu dira eta ondorioz tasa batzuk igo egin dira baina beste batzuk ez. Hala ere, gorabeherak ez dira nabarmenak.

Ur-hornidurari dagokionez, urak orain zuzenean ibaira doaz. Baina 2006tik aurrera, Loiolako depuradorara edo araztegiara eramango dira ur-zikinak; eta handik itsasora. Hau burutzeko hodiak instalatuko dira eta honen kostua ur-horniduraren kuotan igarriko dugu. Baina ez epe laburrean, urte batzuk barru baizik.

Beharpena sumatuko dutenak dendariak izango dira. Ia erdira jeitsiko zaie tarifa herriko dendarietara. Baita negutegietan lanean ari direnei ere. Hobarriak ere aurrikusi dira diru sarrera txikiak dituzten familientzat, eta baita etxeko estolderia tasaren inguruan ere.

Datuak, hobariak, tarifak... ugariak dira. Ezin denak orri honetara ekarri. Baina bada atentzioa deitu digun beste bat, Haur Eskolaren hezkuntza zerbitzuarekin zerikusia duena. Tarifak, kasu honetan, %25ean jaitsiko dira.

Azaro oparora KZgunean

Asko dira KZgunetik pasa diren herritarrek. Horietako batzuk oinarrizko ikastaroa jaso dute. Beste batzuk Interneten nabigatzera hurbiltzen dira KZgunera. Ez ahaztu doaneko zerbitzua dela eta denbora gutxian mundura zabalik dagoen leihoa (Internet) ezagutu ahal izango duzula.



OINARRIZKO INTERNETA (20 ordu)

Azaroak 3-Azaroak 14 (09:00-11:00)

Azaroak 3-Azaroak 14 (18:00-20:00)

Azaroak 10-Azaroak 21 (11:00-13:00)

Azaroak 17-Azaroak 28 (18:00-20:00)

Azaroak 24-Abenduak 5 (11:00-13:00)

NAGUSIWEB (10 ordu)

Azaroak 3-Azaroak 7 (11:00-13:00)

Azaroak 10-Azaroak 21 (16:00-18:00)

MINTEGIAK (2 ordu)

Kutxa I "Zure finantza

entitatearekin lan egin"

azaroak 24 (09:00-11:00)

Postal bat bidali

azaroak 25 (09:00-11:00)

Zure platerak prestatu

azaroak 26 (09:00-11:00)

IT TXARTELA

Azterketa azaroak 28 (16:00-18:00)

Gur z rr ... r z t

G k k l k t k t r z k l n k n z k h n t u z
n r r n, r z t h n k n h k z t n r r.
S n M n k s k M n k m u n t t n h r t r k t z k
u n n 1,2 k h r-h n k n s r t z n u. J r l t u
t r z r r t n m t k S n M r k s k
M n k m u n t t k H r-H n k n k K u t z k
2 2-2 1 l n l n t r l n r t u u. t u t k n
l h n t s u n u t h n k n n k z n r n t z k,
r r r l r n r t z k t r z k l t z r n t r t z
m t r l k u t n l r t x t z k. M U I Z T U
s r t u t k h n k n-k u r u, E E I l l m t r l k
t l Z I K L T U m t r l k r z t l u z.

rt h r z zu r k n n n

K n t z n t z z K n n k h u r t r r k n z u z n k h r m n
z n u, n m z - k u s k z u n n t l s k t k n
t u t z. L k u n z m n n r n

U I


E un	r u	L ku
5	12 3	U m i (S n J u n l z)
11	12 3	H r n n (l z n)
	1 3	L s u t - r (k n l z)
12	12 3	s t m (K l N u s)
1	1	C r f u i- r t z u n
1	12 3	C r f u i- r t z u n
	1 3	n s t -SS (J. U. S n l z / n l r)
1	12 3	r t z u n (S n E s t n l z)
	1	n s t -SS (u l v r)
2	1	C r f u i- r t z u n
23	17	H r n n (U r r k l l)
		C r f u i- r t z u n
2		C r f u i- r t z u n
25		C r f u i- r t z u n

Z

E un	r u	L ku
1	12 3	U s u r l (F r n l l m l z)
	1 3	E r i n l r (Z u m r)
2	12 3	L z (G u r u l z S n l u r n l z)
	1	n s l -SS { t z n a - u n s l r }
3	1	l c m - r t z u n - M m u l
5	11	L s r l - r (Z u m u r u k l z)
		l c m - r t z u n - M m u l
7		l c m - r t z u n - M m u l
	1	l c m - r t z u n - M m u l
12 3		l c m - r t z u n - M m u l
		l c m - r t z u n - M m u l
	1 3	n s l -SS { m i n i - l l l z }
	12 3	s { n l x k l z }
1	12 3	n s l -SS { J s u n l x l z - L n l x }
	1	n s l -SS (Z u i r l)
17	1	G r r
2		G r r
21		G r r
	1	G r r
22		G r r
	12 3	G r r
29	1 3	n s l -SS (J u r r n H - S s. r)
	12 3	E r i n l r (K l M l x l n l z)
2	1	n s l -SS (G r s - T x l r l z)
2	1	U r l
27		U r l
2		U r l
	1	U r l
2		U r l
	12 3	U r l
3	1 3	n s l -SS (E s l z)
	12 3	s { T r n l x r - G u r n l z }

n r E u l 1 k l k n
l z k u l k r l z r

K L E N I M Z I				
	J	L	S	K T I K K
st un	17	-2	3	-21
st r l	11	-13	3 / 17	-21
l y u n t	11	-1	/ 17	-21



Z r **utx** s rtz
uzt n m s r k

H n k n l l
rr r l



E uk ntz
h r

I st k z k ntz k r k (ur , sn , l ...), I r nt k,
urt- ntz k, I st k z k ll s k, l s n ...

M l l z k ntz k k nts r -l t k, fr sk r r k, r s l k
(huts k), lum n z k r ...

rek m t k ntz k sn , zuku k, l m t ...




E uk ntz
ur n

E unk r k t l z k r k...

u l z t l -l urux k.

K r t z k l r r k l k x k.

E uk ntz
r



r z k t l k zuku k, fr sk r r k, muzl k, s r k,
r k, l k r k, t .

r z k t t fl sk k r n k l l k n k, l
rfum n k t k sm tk n k r .

BAN MARKOS-EKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DE SAN MARGOS

V l r -G et z, 1 -2 1 n et -3 11 S et n

T.L. 321 7 -F x 321 3

-m l ms n m re s u l. uz k .n t

www. uz k .n t/s n-m re s



ECOVIDRIO

Zabor gutxiago sortzea, guztion erantzunkizuna

Aurrerapauso batzuk eman ditugu. Birziklatzearen kultura gero eta gehiago zabaldu da eta, horregatik, gaikako bilketa eta birziklapeneko indizeak gorantz egin dute azken urteotan. Baina oraindik asko dugu egiteko. Honen haritik, San Markos Mankomunitateak sentsibilizazio-kanpaina berri bat aurkeztu du. Bide batez, Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala eman nahi da ezagutzera.

San Markos Mankomunitatearen baitan 10 udalerrri biltzen dira. Bada herri hauetako biztanle guztiengana iritsiko da sentsibilizazio kanpaina berria, hau da, Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbilgo etxe guztietara. Guztira, 302.950 biztanle bizi gara mankomunitate honen baitan.

“BIRZIKLATRENA”REN BISITA

Informazioa eta aisia uztartzen ditu aipatu kontzientziazio kanpainak. Azaroaren lehenean iritsiko da gure artera “Birziklatrena” izeneko ikuskizuna. Modu atsegin batean, Hortzmuga antzerki konpainiak birziklapenaren aldeko mezua luzatuko digu. Hori azaroaren lehenean izango da. Azaroaren amaieran, berriz, “3R” izeneko jolas



BIRZIKLATRENA AZAROAREN 1EAN IRITSIKO DA DEMA PLAZARA, EGUERDIKO 12:30ETAN HAIN JUSTU.

eremua zabalduko dute Urbil merkataritza-gunean. Azaroaren 24tik 29ra iraungo du aipatu ekimenak.

Informazio-liburuxkak ere banatuko dira San Markos Mankomunitatea osatzen duten udalerrri guztietako etxeetan, guztira 112.000 ale.

ERRAUSKAILUA AZKENEAN URNIETAN IPINIKO DA

San Markos zabortegea 2006an itxi egingo dute. Alternatiba gisa, errauskailu bat ipiniko da Urnietan. Esan behar

da kokapena zehazteko zalantza asko izan direla, Zubietan ipintzeko aukera ere aurrikusi zen. Baina azkenean, Urnietan ipiniko da. Errauskailuaren ika-mika ez da hor amaitzen. Txingudiko Mankomunitateak Irun, Hondarribia eta Hendaiarako aurrikusi ta baitu errauste-planta bat. Foru Aldunditik, aldiz, Gipuzkoa osorako errauskailu bakarra eraikiko dela esan izan da behin eta berriz. Ikusi behar zertan amaitzen den mahai gainean den tirabira hori.

Ziortza Gazte Elkartearen ere, martxan

Datorren astean hasiko da Ziortza Gazte Elkartearen ikasturtea. Igorri diguten prentsa-oharrak dienez, iaz egindakoarekin pozik dira Ziortzako kideak: “udan kanpaldia egin genuen, ohi bezala, Errioxako Peñaloscintos-en eta balorazioa guztiz positiboa izan da. Donostiako Antiguu auzoko astialdi taldearekin batera izan genuen eta oso esperientzia polita izan da, gazteentzat batipat. Guztira 60 gazte izan genituen bertan”.

Aurtengo ikasturteari dagokionez, hemen dituzue lehen bileren datak. Kontuan izan, lehen bilera hauen ondoren gazteekin



batera zehaztuko direla ondorengo bileren egunak eta orduak, beti ere, gazteei ondoen egokitzen zaien orduetara. Bilera guztiak Ziortza Gazte Elkarteak Usurbilgo Parrokian dituen lokaletan izango dira:

- 1991ean jaiok, urriaren 30ean 19:00etan.
- 1990ean jaiok, urriaren 30ean 19:00etan.
- 1989an jaiok, urriaren 27an 19:00etan.
- 1988an jaiok, urriaren 27an 19:00etan.
- 1987an jaiok, urriaren 27an 20:30etan.
- 1986an jaiok, urriaren 27an 20:30etan.
- 1985ean jaiok, urriaren 25ean 12:00etan.

Udal hautetsien ordainsariekin bueltaka

Azer nolako saltsa sortu den udal korporazioaren ordainsariekin. Minorian gobernatzek horrelako gauzak ditu. Azken unerarte, ezin jakin zein proposamen gailenduko den. Hauteskundeen bihamunean esan genuen, udal kudeaketaren giltza PP eta PSE-EEren esku dago. Bi alderdi hauen botoak guztiz erabakigarriak baitira bai gai honetan eta baita gainontzekoetan ere. Baina hel diezaiozun ordainketen aferari.

Kronologikoki aztertuko dugu gaia. Uztailaren 15eko udalbatza plenoan, hautetsien ordainketak zehaztu ziren. Eusko Alkartasunak eginiko proposamenak PSE-EEren aldeko botoa jaso zuen eta hori jarri zen indarrean. Erabaki honen arabera, urteko diru kopurua 102.494,03 eurokoa zen. PP alderdiak bere proposamena aurkeztu zuen baina ez zen aurrera atera. Alderdi popularraren egitasmoak 153.535,13 euroko kostua suposatzen zuen.

Soldaten gaia argituta zegoela zirudien arren, irailaren 30ean, EAJ-PNV alderdiak beste proposamen bat egin zuen. Urriaren 7an, EAJ-PNVko lau zinegotzik eta PSE-EEko zinegotziak adosturiko ekimena aurkeztu zen udaletxean. Udal teknikarien kalkuluen arabera, proposamen berri honek, 306.835,53 euroko kostua suposatzen zuen. Azken udalbatza plenora eraman baino lehen, Ogasun Batzordean aztertu zen EAJ-PNVk

eta PSE-EEk aurrikusitakoa. Baina batzordean ez zen aurrera atera.

LUZE IRAUN ZUEN

OGASUN BATZORDEAK

Urriaren 16ko Ogasun Batzordea ez zen samurra izan, ia hiru orduz luzatu baitzen. Udal teknikarien esanetan, EAJ-PNVren proposamena ez omen da onargarria, "nulo de pleno derecho" dela argudiatuz. Hau da, baliorik gabeko onarpena litzatekeela.

Ogasun Batzordean egin zen bozketan, alderdi jeltzalearen egitasmoak ez zuen gehiengo lortu.

Batzorde horretan, alkateak osotasunezko zuzenketa proposatu zuen eta bozketan azken hau nagusitu zen, Eusko Alkartasuna eta Alderdi

Popularraren botoekin.

PORTAERA BITXIAK

Bitxiak diren hainbat portaera eman dira gai honen inguruan. EAren lehen proposamena, uztailaren 15ekoa, PSE-EEren babesarekin onartu zen. Orain, berriz, EAJ-PNVren proposamenaren babesle da PSE-EE.

Uztailaren 15ean PP eta EA ez ziren ados jarri. Baina azken Ogasun Batzordean, PPk aurrikusitakoa da aurrera atera dena, EAren botoekin batera. Bitxia behintzat bada.

Imanol Ubeda


ORDAINSARIEN PROPOSAMEN EZBERDINAK *

PROPOSAMENAK	URTEKO GASTUA	EZAUGARRIAK
EAren proposamena	102.494,03 euro	Hautetsiak joralean: 1,5. (54.488,56 euro urteko) Taldegastuak: 0 euro. Bileretako dietak urteko: 31.658,90 euro.
PPren proposamena	155.535,13 euro	Hautetsiak joralean: 1,5. (54.488,56 euro urteko) Taldegastuak: 27.600 euro. Bileretako dietak urteko: 55.100,00 euro.
EAJ-PNV eta PSE-EE alderdien proposamena	306.835,53 euro	Hautetsiak joralean: 4. (192.306,53 euro urteko) Taldegastuak: 35.433,84 euro. Bileretako dietak urteko: 21.403,20 euro.

* Udal teknikariek ezarritako sistema bidez egin dira kalkulu ekonomiko hauek.

Noaua! aldizkaria
on line

www.noaua.com



Urtinea

L r k - L r l n r k

L r s r t k - K r k

San Esteban Tlf.: 943 36 22 55

JU NTX

ur n

k l n us l Usur l
S/

Akabo festak

Aginagako festak dira urteko azkenak. Nahiz eta festa egiteko edozein aitzaki baliogarri izan, jai egun "ofizialak" amaitu dira aurtengoz.

Aginagan bi asteburutan ospatu ohi dira San Praixku jaiak. Lehenean, euria izan zen protagonista nagusia. Bigarren asteburuan, ordea, eguraldia ez zen arazo izan eta jende asko bildu zen. Pailazoen saioan, esate baterako, gainezka izan zen kiroldegia. Baina apaiz etxeko erakusketa izan da inoizko ikusgarriena.



ERA GUZTIETAKO ARTISAU LANAK BILDU ZIREN APAIZ ETXEAN.



EGAN TALDEAK GIROTU ZUEN HERRI AFARIA.



AZKEN URTEOTAN BEZALA, PAILAZOEN SAIDA IZAN DA JENDETSUENA.

Ezin anguletara joan

Angula biltzaileek denbora batean itxaron beharko dute. Prestige ontziaren isuriak eragindako kalteak direla eta, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako barnealdeko ibaetan angulak biltzea debekatu egin du Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza departamentuak. Angularen arrantza urriaren 14an hastekoa zen baina neurri honen ondorioz, bolada batean ezinezkoa izango da.

Erabakia ez da behin betikoa. Epe jakin batean, Prestige ontziak isuritako fuelak angulei zer nolako kaltea eragin dien frogatzeko, beharrezko ikerketa eta

analisi guztiak egingo dira.

Neurri honen atzean, egun departamentuak eskura dituen datu tekniko eta zientifikoak daude. Hala ere, hartutako neurriak aldi baterakoak direnez, angulak arrantzatzeko baimena zientzialarien txostenek horixe aholkatu bezain laster emango da.

«Neurria behin behinekoa da», adierazi du Lakuako Gobernuaren Prestigeren hondamenari aurre egiteko sortutako erakunde arteko batzordearen ordezkariak. «Guretzat beharrezkoa da uraren kalitatea eta arrantzatzen diren produktuen kalitatea bermatzea», adierazi du erakunde arteko batzordearen ordezkariak.

ESPETXERATU EGIN DUTE KARLOS MARTIN

Ustez ETArekin zerikusia zutelakoan, 34 lagun atxilotu zituzten Espainia eta Frantziako poliziaiek. Horien artean, Karlos Martin. Usurbilen bizi bazen ere, izatez lasartearra da. Epailearen aurrean deklaratu ostean, Soto del Realgo kartzelan espetxeratu zuten.

Irudian, Aginagako jaietan preso en seneideei eginiko omenaldia.



H ur
ntz, k

Pauma

KLN 2011 TL 335 3

txirriStra

TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitarkeoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13

Tel: 943 36 04 66

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Inoiz ez da berandu

Aitzagak antolatu ohi duen pilota txapelketan hasi zen jokatzeko, "baina pilota goxoarekin". Andatzpe taldeko Enrike Huizik, ordea, pilotari sena sumatu zion eta afizionatuetara pasatzeko gonbitea egin zion Javierri. Artean 34 urte zituen Javier Sanchok, gure protagonistak. Inoiz ez da berandu esan eta 40 urterekin Aginagako Txapelketa irabazi berri du, Landa bikotearekin batera.



JAVIER SANGHO 34 URTEREkin HASI ZEN AFIZIONATUEN MAILAN.

"Eskuek ondo erantzun dute eta bikote ona izan dut", aitortu digu Javier Sanchok. Aginagako pilotalekua, gainera, pilotan aritzeko primerakoa dela uste du.

Bitxia da kaxkoan bizi den pilotari honen ibilbidea, 34 urterekin pasa baitzen afizionatuetara. Lehengo astean, 40 urterekin, Aginagako Txapelketa irabazi zuen baina ez du erretiroan pentsatzen: "gogorra da baina ilusionatuta nago. Gogo handiz entrenatzen dut eta ondo ikusten dut nere burua".

Hasieran urduri jokatzeko zuela azaldu digu: "denborarekin lasaiago jokatzeko ikasi dut". Lehenengo urtean asko sufritu zuen eskuekin baina orain inoiz baino gehiago ari da gozatzen.

Semeak, Xabierrek, 11 urte ditu eta pilo-

tan ondo moldatzen da. Javier aitak esan digunez, "ondo dabil pilotan, baina gaur egun kirol eskaintza handia da eta eskubaloian eta futboleko ere aritzen da. Ikusi behar zein bide hartzen duen". Jakin badauki ez duela luzaroan lehiatzeko moduan iraungo, adinak ez du barkatzen, baina bere ametsa betetzeko modukoa dirudi. "Semearekin batera jokatzeko gustatuko litzaidake, agian hori izan daiteke erretiratzeko unea".

Pilota nagusi da Sanchotarren etxean. Akaso emaztea da "nekatuta dagoena, baina ondo ikusten du gure afizioa", esan digu Javierrek. Urte askotarako izan dadila.

ZUBIETAKO PILOTA ELKARTEA, TXAPELKETATIK KANPO

Finalerdien atarian geratu dira Zubietako errebotetako taldeko kideak. Final laurdeneko norgehiagokan, Villabonako Behar Zana taldea izan zen nagusi 13-6 emaitzarekin. Endika Abril txapelketako finala azaroaren 2an jokatu da Zubietan.

MUS TXAPELKETA ZUBELDIA TALDEAREN ESKUTIK

Zubeldia Txirindulari Taldeak mus txapelketa antolatu du. Sari ederrak eramango dituzte txapelketako lehen lau bikoteek. Txapelketa Txiribogan jokatu da, arratsaldeko 16:30etan hasita. Izena emateko epea, dena den, ordu erdi lehenago amaituko da, arratsaldeko 16:00etan. Prezioa: 12 euro bikoteko.

1. Saria: mariskada bat, bi arkume, gulak eta txanpaina.
2. Mariskada, arkume bat, gulak eta txanpaina.
3. Txuleta 4kg, gulak eta txanpaina.
4. Sahieskia 4kg, gulak eta txanpaina.

Hurrengo saioak !

FUTBOLA

Urriak 25/26

Emakumezkoen liga: Usurbil FT - Vasconia CD. 16:30etan Haranen.

Erregionalen 2. maila: Lazkao KE - Usurbil FT.

Kadeteen 2. maila: Usurbil FT - Kostkas Miren.



Kadeteen 2. maila: Amara Berri KE - Usurbil FT.

ESKUBALOIA

Urriak 25/26

Helduak: Leizaran-Ernio inmobiliaria- Usurbil KE.

Kadeteak: Usurbil KE- CDB Leizaran.

Azaroak 1/2

Emakumezkoen liga: Dunboa Eguzki B - Usurbil FT.

Erregionalen 2. maila: Usurbil FT - Idiazabal KE.

Azaroak 1/2

Helduak: Usurbil KE- Ormaiztegi KE.

Kadeteak: Donibane Eskubaloia- Usurbil KE.



ITZ G

HE IK T EN

S U S T I T U I T A K I U R
K O N T I N U A T A K I U R

T I L E . 3 3 2 1 7





L K T

U T Z E I T Z U

F I T K
Z K I K
E T X E K O K T U K
K N O E L T U K

h k k l , 4
T I I 4 3 3 5 7 4 2



Usurbil

Usurbildarrak gara gu eta ederra dugu herria, zazpi auzo ta eliza ditu udalan du armarrria; Oria ibaia igarotzen da, ez dago oso garbia bere gainean eraiki zuten Santu-eneko zubia.

Bidean gora hasterakoan ikusten dugu tontorra, San Estebango zaindari dena dugu eliza koxkorra; menditik behera ura jaisten da garden ta bizkor-bizkorra uda honetan azaldu zaigu bakarti eta lehorra.

Auzo artean zaharrena dugu ta politena Kalejar, garai bateko herria zena orain auzo izan behar; bertatik pasa izanez gero bisita ezazu Saizar, plaza, eliza, udaletxea, moja etxea, etabar.


Zubieta da herri honetan mugan dagoen auzoa belardi zabal eta baserriz dago beterik osoa, nahiz Donostia urruti egon egin digu eraso baina hemengo jendea ez da, ez da batere inozoa.

Herri barruan beste herrixka dotorea da Agina, auzoa dela pentsatzen dunak da oso buru arina; ez daki zer esaten ari den ez da usurbildar fina, "gula" ta angulak dira munduan zabaltzen dutenak grina.

Txokoalde da Usurbileko auzotxo maitagarria bertakoa da ezaguna den Zumeta margolaria; ezin da ahaztu, hantxe dagoen iskineko jauregia, mendian gora, zuhaitz artean ageri da urtegia.

Kontuan hartu falta zaigula oraindik ere Kaxkoa, Irazu eta Etxebestetik dena da aipatzekoa, eliza, parke, Paris-etxea eta frontoi parekoa taberna franko gordetzen ditun paregabeko txokoa.

Egileak: DBH-4. mailako ikasleak



MAHUKA

G z n t m k u m z k n
m k r r u z t
h m n u r k t u k u z u

Etx at k l , 3
Tlf: 33 11



TXIRIBOGA

taberna

pintxoak, bokatak eta
plater konbinatuak

Telf: 943 36 13 98

TXU UT



r t

t mus k ts n

S n Est un k l , 1
Tlf: 33

GL

G

garraioak

ZABOR BILÆET

TELF: 943 37 01 46

Lehiaketa !

NOAUA!ko LEHIAKETA!!

Ezetz asmatu bi galdera hauek? Sari zoragarri hau irabazi nahi baduzu parte hartu eta bidali zure erantzunak:
 Noaua! hamaboskaria, Bordaiberr 3 Eguzkizaldea, 20170 Usurbil (Gipuzkoa)

Noaua! Kultur Elkarteko buzoian
 E-maila: noaua.k.e@euskalnet.net

Erantzunak bidaltzeko azken eguna azaroak 2.

1. Nor da "ZUBIETA, mila urteko herria" izenburua daraman liburuaren egilea?
2. Eta liburuaren azaleko marrazkia nork egina da?



SARIA:

ARGIA ren "BADAKIT" mahai jolasa

"BADAKIT" mahai jolasa gazteak lagunartean nahiz famili giroan jolastuz ikasteko eta dibertitzeko, funtzio ludikoa eta aldi berean pedagogikoa betetzen duen euskarazko tribiala da.

Aurreko galderen erantzunak:

1. Zein urtetan sortu zen Noaua! Kultur Elkarteak? 1996. urtean
2. Zein da Noaua!ko webgunearen helbidea? www.noaua.com

Era irabazlea HARTZ BIRASATSEGI izan da. Telefono desak hartzeko "OHARREN TAKOA", Koldo eta Arantzaaren "ZURETZAT" musika erla eta "AZPIAK BATMAN" karniseta irabazi dituzte. Jaso ezazu saria Noaua!ko egoitza. ZORIONAK!!



Soluzioa 22. orrian

Usurbilgo futbol jokalaria

	Iratzea	Ederto	Sortaldea	Musika nota	Eskasak
	Adieraziak	Lasaitu	(Zah.) Zakur	Jupiterren satelitea	
	Etsai, aurkari				Bokala
	Bukatua				Atea
* DEITURA	Bokala	Iridioa	Bokala	S birritan	
Tresna zaharrak	* IZENA	Bokala	Oinarritzko edaria	5. eta 3. bikalak	
Emakume izena		Distira			
Gizendu		Titanioa			
			Lehen bi bokalak	Kontso bikoitza	
			Sugetzarra	Infin., kendu	
Beti lo			Kontso-nantea	Ahuntzaren ar	
Baneuka			Begira	Sufrea	
		Txanpon		Modua	
		Iodoa		Oxigenoa	
Trebea, abila				Zintzoak	

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52/		10.21/	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22/		11.47/
11.51	12.05	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21/		20.48/	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07/		22.32/
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05		08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05	09.30	09.30
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40		11.05	11.25		09.30	09.35	10.00
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05		10.30
11.40		12.05	12.25	09.45**	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25**			10.30	10.35	11.00
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05		11.30
12.40		13.05	13.25	10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05		12.30
13.00	13.25	13.35	13.55 #	11.45	12.05	12.15	12.40
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05		13.30
14.00	14.20	14.30**		12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.25	14.35	14.55		13.30	13.35	13.55*
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05		14.30
15.00	15.20	15.30		13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.25	15.35	15.55		14.30	14.35	15.00
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05		15.30
16.00	16.25	16.35	16.55	14.45	15.05	15.15	15.40
16.40		17.05	17.25		15.30	15.35	15.55*
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05		16.30
17.40		18.05	18.25	15.45	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.30			16.30	16.35	17.00
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05		17.30
18.40		19.05	19.25	16.45	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05		18.30
19.00	19.25	19.35	19.55	17.45	18.05	18.15	18.40
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05		19.30
20.00	20.20	20.30		18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.25	20.35	20.55#		19.30	19.35	20.00
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05		20.30
21.00	21.25	21.35	21.55	19.45	20.05	20.15	20.40
22.15		22.45	23.05	20.45	21.05	21.15	21.40
22.00	22.25	22.35	22.55	21.15	21.35	21.40	22.00
22.30	22.55	23.05	23.25	21.45	22.05	22.15	22.40
00:00		00:25	00:45	23.15	23.35		00.00
02:00		02:25	02:45	01.15	01.35		02.00
04:00		04:25	04:45	03.15	03.35		04.00
06:00		06:25	06:45	05.15	05.35		06.00

**Aiarrino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiaia

Soilik larunbata gauze / Astegunetan larunbat lanegunetan

Goardiako farmaziak

Urriak 24, ostirala
E: Gil, Nagusia 24, Lasarte
G: Iturralde, Bordaberri 1, Usurbil

Urriak 25, larunbata
E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte/OA, Kontzeju zaharra 11, Usurbil
G: Arzallus, Larramendi 16, Andoain

Urriak 26, igandea
E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte
G: Arzallus, Larramendi 16, Andoain

Urriak 27, astelehena
E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte
G: OA, Kontzeju zaharra 11, Usurbil

Urriak 28, asteartea
E: Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte
G: Tanco, Idiazabal 39, Urnieta

Urriak 29, asteazkena
E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte
G: Chucla, Kardaberaz 48, Hernani

Urriak 30, osteguna
E: De Miguel, Nagusia, 32, Lasarte
G: Correa, Perkaiztegi 8, Hernani

Urriak 31, ostirala
E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte
G: Aizpuru, Latxunberri berri 11, Hernani

Azaroak 1, larunbata
E/G: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte

Azaroak 2, igandea
E/G: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte

Azaroak 3, astelehena
E: Gil, Nagusia 24, Lasarte
G: Bilbao, Urbieta 7, Hernani

Azaroak 4, asteartea
E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte
G: Gomez, Nagusia 14, Hernani

Azaroak 5, asteazkena
E: Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte
G: Bulnes, Grupo Etxeberria 1, Hernani

Azaroak 6, osteguna
E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte
G: Chucla, Kardaberaz 48, Hernani

Azaroak 7, ostirala
E: De Miguel, Nagusia, 32, Lasarte
G: Ansa, Ondarreta 8, Andoain

Azaroak 8, larunbata
E: De Miguel, Nagusia, 32, Lasarte / OA, Kontzeju zaharra 11, Usurbil
G: De Miguel, Nagusia, 32, Lasarte

Azaroak 9, igandea
E/G: De Miguel, Nagusia, 32, Lasarte

E: Egunez G: Gauzez E/G: Egunez eta gauzez

Urte osoko egutegia
noaua.com helbidean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren Noaua!

Azaroa						
As.	Ar.	Az.	Ox.	Ost.	La.	Ig.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

Hurrengo alea ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa..... 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Kalezar)..... 36 45 00
- Agerialde ikastetxea..... 36 38 95
- Oiardo kiroldegia..... 37 24 98
- Zumarte..... 37 15 94
- Etumeta..... 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A..... 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkarrea..... 37 17 51
- Arrate egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren..... 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero)..... 47 09 76

Oharrak

Txerrimunik ordainetan

ETXEBIZITZA

- Alokairuzko pisu baten bila nabil, Usurbilen edo inguruan, konpartitzeko. Interesatuak deitu 696 993 089.
- Kaxkoan etxebizitza bat salgai. 670 90 27 62.
- Pisu a lokatu edo konpartitu nahi nuke. Nirekin harremanetan jartzeko deitu 647 973 844 telefono zenbakira.
- Pisu bat bilatzen ari naiz, alokatzeko edo konpartitzeko. Oso urgentea da beraz, pisurik alokatzeko baduzu edo gelaren bat, deitu mesedez hainbat arinen 615 71 01 64 telefonora (Gotzon).
- Etxebizitza salgai kaxkoan. Hiru gela, sala eta berogailuz hornitua. Igoailua ere bada. Tf: 627 377 666.
- Estudio bat edo apartamendu bat alokatuko nuke. Tf: 677 082 305.
- Pisu baten bila nabil Usurbilen, alokairuan hartzeko prest nago. Tf: 617 194 688 (Raul).
- Alokairuan dagoen etxe baten bila gabiltza. 670 532 443.
- Etxe bat edo lursaila etxe bat eraikitzeko erosi nahi dut Usurbilen. Tlf: 943 314791.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364469.
- Alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Urgentea da. Telf: 943 366 759.
- Pisu bat saltzen dut. Munalurra 4, 4 A. Telefonoa: 943 37 10 44.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxiak saltzen ditut Kale Nagusian. 30 m, 18.000 euro / 15 m 7.800 euro. Telefonoa: 943 37 23 68.
- Yamaha YZ 125 motokros motorra salgai. 1.000 euro. 616 182 574.
- Suzuki Marander 250 CC salgai. Matrikula, SS-4001-BD. Oso egoera onean. Telefonoa: 670 328 760.
- Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185.
- Galtzaragaina elkartearen bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- Galtzaragainan 200 eta 300 m²-ko bi lokal alokairuan. Interesatuak juntako kideengana jo.
- Galtzaragainan 20 m²-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77.
- Eguzkitzan 30 metro karratuko garaje itxia salgai. 667 583 195 (Maria Angeles). Deitu eguerditan edo gauz, bestela utzi mezua.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Umeak zainduko nituzke, edozein ordutegian. Deitu 943 37 10 32 telefono zenbakira.
- Eskolan laguntzarik behar al duzu? Dei iezadazu 943 360 754 (Ana).
- Etxeko garbiketa-lanak egiteko prest nago. Astean hirutan lan egiteko prest. Goizez,

9:30-12:00ak artean. Tf: 943 36 61 32.

- Lan egin nahi nuke udan, arratsaldeetan. Umeak edota jende heldua zaintzeko prest nago. Tf: 657 714 355.
- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zaintzeko. 619 844 556 egun osoz.
- Umeak zainduko nituzke, arratsaldez bi orduz. Tf: 647 220 966 (Mari Karmen).
- Lan bila nabil eta etxeko-lanak egingo nituzke, gauz edo egunez. 620 646 769.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan, Deitu hona: 652 757 495.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko. 15:00etatik 17:00etara. Astelehen, asteazken eta ostiraletan. 943 36 57 37.

Lan-eskaintzak

- Patri jatetxean zerbitzari bat behar dugu. Deitu 943 36 27 25 telefono zenbakira.
- Sukaldari, kamarera, tabernari eta garbitzailea behar dugu, jatetxe-taberna berrirako. Deitu 15:00-18:00. Tf: 687 078 356.
- Kamarera bat behar dugu asteburuetan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 36 33 58.
- Langile bat behar dugu tabernan lan egiteko, larunbata eta igandetarako. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943 360 217.
- Tabernari bat behar dugu. Deitu telefono hauetara: 943 360 217 / 649 211 665.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Lehengo ilean argazki kamera digitala galdu genuen. Sanyo markakoa. Aurkitu duenak mesedez telefono honetara dei diezagula: 943-360420. Eta besterik ez bada, gutxienez barruan dauden argazkiak eskuratu nahi genituzke.
- Urbilgo bus geltokian argazki marko handi bat tela puska bat "punto de cruz"-ean egina ahaztu genuen. Topatu baduzu deituidazu: 94337 20 34.
- Txakur marroi bat galdu da Zubietan. Koilare urdina du. Topatzen baduzu dei iezadazu: 943 36 39 43 / 655 715 469.
- Erloju bat galdu da, Speedo markakoa. Zilarrezko korreaduna, urdina, esfera obalata. Bordatxotik Muna Lurra bidean galdu da. Deitu 943 37 07 56.
- Belarritako batzuk galdu dira, urrezkoak, Optika inguruan. Topatu badituzu deitu 943 36 06 59 telefono zenbakira.
- Hemezortzi hilabete dituen haur ekuatoriar batentzat kotxe-sila bat behar dut. Deitu Mari Karmeni 943 36 12 04 telefono zenbakira. Eskerririk asko aurrez.
- Ibilgailuarekin eramateko egokituta dagoen kanping-denda bat saltzen dut. Kanpingaren osagarri extrak barne. Deitu honako telefonora: 635 729 637.
- Pelukeria bateko estetika kabina bat alokatzen da. 943 36 19 71.

Zorionak Sara!
Urriaren 23an urte bat beteko du gure matrakak. Muxu asko asko famili guztien partez!



Zorionak Nora!
Azaroaren 2an lau urte bete ditu gure etxeko neska. Zorionak eta muxu pilo bat etxeko guztien partez!

Zorionak Aina!
Urriaren 26an gure pinpilipauxak urteak egingo ditu. Ondo pasa eguna ta ea zerbaitea gonbidatzen gaituzun... Muxu asko denon partetik!



JAIOTZAK

- **Nagore Iraola Sanchez**
2003-X-4.
- **Eva Guisado Lobo**
2003-X-6.

Txerrimunik ordainetan - Oharrak,
doaneko zerbitzuak dira.
Gure bulegora etorri edo postaz bidali aipatu nahi duzuna.

Posta helbidea:
Noaua! Kultur Elkarte - Borda Berri, 3
Eguzkitzaldea 20170 Usurbil

E-posta:
noaua.k.e@euskalnet.net

Agenda !

URRIAK 26 - igandea
3:00.- Ordu aldaketa. Goizeko 3:00etan 2:00ak izango dira.

URRIAK 27 - astelehena
19:00/21:00.- Odol ateratzea herriko anbulategian. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

AZAROAK 1 - larunbata
Eskulangintza zein nekazaritza produktuen azoka.

AZAROAK 9 - igandea
Erle Eguna.

Soluzioa !



VIOVRI INODNV

Musikaren txokoa !



Angel Unzuren 10 melodia berri

Angel Unzu, Euskal Herriko gitarra jole eta konposatzaile-rik esanguratsuenetakoa dugu.



Musikari bezala, hainbat zuzeneko zein grabaketatan hartu du parte (Ganbara, Kepa Junkera, Benito Lertxundi...); bere eskutatik etorri dira, era berean, azken garaiko dis-

korik garrantzitsuenetako produkzioak ere (Olatz Zugastiren "Bulun-Bulunka", Alaitz eta Mainerren "Auskalo", Benito Lertxundiren "Nere Ekialdean"...). Konposatzaile bezala, hauxe duzu bere bigarren diskoa, sokarako bereziki moldaturik; 10 melodia gozo eta hegalaria, larru-azaletik barrura gogoa irudiz betetzen duten hamar sentimendu sakon.

Egin kontu !

Arangoiti ikastolaren aldeko afaria

Euroiak ez zuen soilik Nafarroa Oinez eguna zapuztu. Baita Arangoitiko ikastolaren egitasmo nagusia ere. Haurrek 200 urteko erakin batean emango dute negua, berogailu eta erosotasunik gabe, oso baldintza txarretan eta ikastola berriarekin ametsetan. Nafarroako Gobernuak, bere aldetik, oraindik ez dizkie iazko diru-laguntzak ordaindu.

Egoera horren aurrean, Nafarroa Oinez 2003ko antolatzaileek lau kontu korrante zabaldu dituzte.



Honen haritik, herri-afari bat antolatu da. Afaria Santu Guztien egunaren bezperean egingo da, urriaren 31n, ostirala. Agerialden egingo da aipatu afaria.

Nafarroako Aurrezki Kutxa: 2054 0041 86 9134923815
Nafarroako Baserritarren Kutxa: 3008 0042 51 1203795925
Santander Central Hispano: 0049 2572 24 2514210130
Euskadiko Kutxa: 3035 0058 35 0580077630

al s p stera

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria
Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

PATRI
JATEETXEA

- Eguzkeroko menuak
- Plater-konpainak
- Ogintzetak

Telf: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14

H n k n U z n n, s l z

USU ILG H TZ KLINIK

FE N N E EZ-M SS NENINGE
NT NI E N L UIZ E


K ! N us , 2 ! C
Tlf 3 37 7

2 17
USU IL

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olagarria - Gozotegia

LABE-GOXO



Menuak arteen zehar eta

ZENDOIA

asteburutan menu bereziak

Telf: 943374021, Kale nagusia 35

ALKARTASUNA KOOPERATIBA

baserritar nahiz kaletarrentzat

Garaian garaiko egokia:

*piperrantzako ospina eta
patxaranerako anisa*

Baserriko kalitatezko
produktuak:

*gazta, iogurta, txakolina,
zainzuriak, piperrak...*



*Betikoak: ongariak, lanabesak, haziak,
elikagaiak,...*

*Bereziak: oinetakoak, hurdindegia,
txakur, katu eta txori-janak,...*

*Ordutegia: goizez 9-13, arratsaldez 16-19,
larunbatetan soilik goiz partean*

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14
E-mail: alkartasuna@fcae.org

URTINEA lorategia

Egun osoan zehar zabalik!

Santu Guztien Egunean erramuak,
zentruak, koroak eta landaretan aukera
zabala hemen aurkituko duzu

San Esteban auzoa Telf: 943 36 22 55



IGELTSEKITZA

URDANTZI

Mugikorra: 649 435475
649 435476
Telf: 943 363370 - 943 361439

ERRAZKIN IGELTSEKITZA

☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25

urki-mitxe@euskalnet.net

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura



Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

JOSUE ARANZAZISTROKI

Igeltseritza eta pin-

Juan Jose enea, 6
Kalezar
943 36 05 50 - 606 37

ITURGINTZA

PORTULARRUME

- Bainuko altzariak
- Era guztietako
manparak



Telf: 943 36 46 37

JAVIER ORBEGOZO

Iturgintza
Gasa



Berokuntza



Arizama kalea, 7, Lezio Tlf: 943 372937

Mob: 609 602789

JOSEBA ARANGUREN

☎ 943 83 00 72
659 88 39 12

IÑAKI LATAILLADE

Iturgintza, gas, berogintza,
klimatizazio instalakuntzak
eta

Mobila: 609 88 80 21

USURBILGO OFIZIOAK

ZURE ESKURA DITUZU

ARROZTEGIAK

BEREZIARTUA

Egurra eta egurra-
aluminiozko LEIHOAK
eta ESKAILERAK

Aginaga Telf: 943 37 15 71

JOXE MARI IKUTZA

Ugarte, 4 Kalezar

Telf eta faxes: 943 37 12 21

BARRENETXE

SALSAMENDI ARREGI,

- Ateak Mahaiak

Zubieta, Telf/Fax: 943 36
26 64

Tf. 943 37 64 15 Fax. 943 36 05 10

ARROZTEGIA

GORKA URRUZOLA

Astecastain industrialdea, 3

ELEKTRIZITATEA

Telf: 943 36 50 95 Mug: 609 068 111

Elektrizitatea

IZAGUIRRE

Goiz Argi etxea, 37 Kalezar

ARGILAN

JOSE LUIS BORDA ZUGASTI

- Argiztatze eta industria instalazioak
Konponketak

Bordaberri, 5-behea

Telf: 943 36 13 80
Mug: 629 27 28 59

ESKAIOLAK

EUGENIO

NORIEGA

Erdiko kalea, 12

Telf: 943 36 56 65-

616 92 60 25

JOSE ANTONIO

ELORZA

Galtzaragaina 2-2B

Telf 943 37 34 70

PINTURAK

RAMON BAR-

- Pikor pintura eta gotele lanak
- Papereztatze- lanak
- Pintura-lanak orohar

Mobila: 629 46 09 66

FERNANDO PINTURAK

✖ Enpapelaketak eta pinturak
orokorrean

✖ Lurzorak jartzen dira

Telf: 943 36 60 19- 36 34 60



S
n n

m r k

Telf: 605 70 25 17 /656 75
30 63

Arrantzale kalea, 8 - 2.ezk

Gida honetan azaldu
nahi baduzu, deitu
943 360321 telefonora